Gure Neguko Eskeak

Bostagarren B-ko neska mutilak
zuen gana gaur ekartzen
jende jatorra dugu eskolan
Kepa eta Mari Carmen.

Janaria ez dugu jaten guk
gustatzen ez zaigulako
errespetua nahi dugu ere
ikasle guztientzako.

Etxerako lan asko ditugu
ez ditugu nahi gehiago
eta gainera hilabetero
azterketa pilo dago.

Nahi baduzue guk ikastera
erosi guri tabletak
txangoak ere nahi ditugu guk
mesedez oso politak.

Posible bada nahi genuke guk
patioan tirolina.
ez da hain beste eta mesedez
gimnasioan pistina.

Eskerrikasko asko zuei denoi
guk esaten dizuegu
kasoa egin diguzue gaur
ta joan beharko dugu.